

{ datorrena } Oier IMAZ ALIAS

Eta listo...

Deixem el pessimisme per a temps millors». (David Fernandez, 2024/05/13). Neurrik ez duenari neurria hartzea zaila da. Baina tematzen gara. Steven Pinkerrek, adibidez, neurria hartu nahi izan zion giza garapenari, ondorioztatze gurea dela mundu posibleen artean hoberena. Bere argudioa zedarritzeko, datuak baliatzen zituen. 30 urte atzera joz gero (liburua 2018an argitaratu zen), txikiagoa da, egun, gerra kopurua (23tik 12ra), autokrazia kopurua (85etik 60ra) eta baita muturreko pobrezia ere (%37tik %10era). Ez badirudi ere, ondo goaz.

Ariketa interesgarria da liburua hartu eta kontra argudiatzen saiatzea.

Adibidez, argiaren itzalei begiratuz. Inguru haue-
tan Pinker ezaguna egin
zen gizakien hizkuntza-se-
nari buruz idatzitako la-
nengatik. Bere ideia zen
hizkuntza-gaitasuna giza-
kiarena dela, bere ebolu-
zioaren berariazko emaitza
eta, bere oinarrian, uniber-
tsala. Humboldtten ingu-
ruan eztabaidatzeko bali-
atzen zuen Pinker gure
irakasle batek fakultatean.
Hizkuntzak ez du mundu
ikuskerarik biltzen. “El mentalés” deitzen zuen dela-
ko hizkuntza gaitasun unibertsal hori. “El español”
entzuten genion guk ia nahigabe...

Beste aukera bat da erakustea joera orokorrak ere
aldatzen ari direla. Pinkerrek baliatzen zituen datu
gehienak 2015era iristen ziren. Baina azken 15 urtee-
tako datuek diote gora egin duela autokrazien kopu-
ruak edo 70eko hamarkadara bueltatu beharko genu-
keela, munduan zehar gerran hildakoen kopurua
berdintzeko. European 80.000 hildako kontatzen dira,
eta hori 2022an bakarrik; ia aurreko 70 urteetan be-
zainbeste. Eta Gazan 35.000tik gora dira hildakoak
urriaren 7tik, Nazio Batuen arabera. Agian, ez goaz
horren ondo...

Labur, joera orokorrak adierazten dituzten batez-
bestekoetan ñabardura gehiegi sartzen dira, baina
sufrimenduaren distribuzioa munduan ez da “nor-
mala”. Ez dakit esaten gurean joerek baikortasunera-
ko ematen duten. Haurrak galdetzen dizunean beza-
la: «Hasi da III. Mundu Gerra?» Ez dakit, ez dut uste,
espero dut ezetz... Aldiz, uste dut kontuan hartu
beharko genukeela, normalean, neurria hartzeaz ari
garenean, mundua gure neurrira ekartzeaz ari garela,
finean. Kezkatzen nauena haurrari eman beharreko
erantzuna da. Eta hori ondo ulertu zuen Pinkerrek.

Mundu onenaren hipotesia datuetara ekarriz, ja-
rrera bat bultzatu nahi zuen herritarren artean. Jarrai
dezagun mundua hobetzen, etsipenean erori gabe.
Eta horretarako, abiapuntu sendo bat eskaintzen
zuen; hobeto gaude, datuek hala diote. Gure haur

Joera orokorrak adierazten dituzten
batezbestekoetan ñabardura gehiegi
sartzen dira, baina sufrimenduaren
distribuzioa munduan ez da «normala»

zaharrenari kontatzeko moduko istorioa da. David
Fernandezek kontrako bidetik jotzen zuen: ikusten
duguna etsigarria delako utzi behar dugu ezkortasu-
na garai hobeentzat. Etsipenari bazter egiteko arra-
zoiak ematen dizkigu, ahaztu gabe mundua gure
neurrira ekartzeak errazki eramaten gaituela gure
ongizatearen neurrian gotortzera. Baina ez da konta-
tzen hain erraza.

Gauzak ez daude ondo, baina ezin diogu etsipenari
men egin. Eta listo. Jabetzen naiz oso oinarritzkoak di-
ren gauzei buruz ari naizela. Honetarako ez dut
behar datu bakar bat ere. Baina iruditzen zait dato-
zen garaietan oso oinarritzko gauzei erreparatzea to-
katuko zaigula. •